

HEDABIDEAK

BL-EGIZU		ESPARRUari ekarpena
EKARPENA	Hedabideek euskarazko jardueri zabalpen berezia ematea eta hauek iragartzea. Getxoko Udalak euskarazko hedabideetan (tokikoak zein Euskal Herrikoak) publizitate gehiago jartzea.	
Neurrian aurreikusita dagoela uste da		
AZALPENA	Getxoko udalaren menpeko hedabideetan euskarazko jarduerak iragartzen dira eta askotan zabalpen berezia ere egiten zaie. Publizitatea jartzean, kontuan izaten dira irakurle/entzule/ikusle kopurua eta horrez gain euskaraz diren ala ez baina hau ez da irizpide bakarra. Hala ere ezin aipatu barik utzi azken 4 urteotan Getxoko Udalak euskarazko medioetan jarritako iragarkien izan duten gorakada.	

1

BILDU		1. HELBURUko 1. ekintzari ekarpena
GALDERA	Zeintzuk dira horiek?	
ERANTZUNA	Hiruka proiektuaren barruan daudenak eta etorkizunean sortu ahal direnak.	

BILDU		2. HELBURUko 4. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Publizitate kontratazioetan beti aukeratuko da euskarazko egunkari bat, Euskal Herri mailako eta beste bat herri-mailako, gauza bera egingo da irrati eta telebistetan. Bi merkatu desberdin bezala hartu behar dira eta gaztelaniazko publizitatean inbertitzen dena ezin izango da inoiz euskarazko publizitatean inbertitzen dena baino %25 baino handiagoa.	
Ez da onartzen		
AZALPENA	Getxoko udalaren publizitate-irizpideetan Euskara ere sartzen den arren, beste faktore batzuk ere bilatzen dira, hala nola herritarrik gehienengana ailegatzea.	